



Travel-Up SL

Funtsezko baliabideak

Funtsezko elementuak enpresa bati bere balio-proposameneko eskaintza garatzen ahalbidetzen diotenak dira, bezeroengana iristen, haiekin harremanak izaten eta diru-sarrerak sortzen.

Enpresa baten funtsezko baliabideak honela banatzen dira; Alde batetik, baliabide fisikoak aurkitzen ditugu. Lanerako lokala, ordenagailua eta telefonoa daude baliabide fisikoen barruan. Bestalde, finantza-baliabideak gure aurrezkiak izango dira. Amaitzeko, baliabide intelektualak eta giza baliabideak jarriko ditugu, Iruneren sormena, Alaitz eta Axelek dauzkaten informatikako eta webguneak diseinatzeko ezagutzak, eta Endikak eta Anek dauzkaten salmentarako eta antolaketarako abileziak hemen barruan sartzen dira.

